

Udan ere ikastera

Ikasturtea irailean amaitzen da zenbait ikaslerentzat, aurreko ikasturtean kolokan utzitako ikasgaiak gainditu ondoren.

LARA ARRUTI. Donostia.

Ikasle bizitza dela onena esan ohi du jendeak, opor luzeak dituztelako eta, ekonomiari dagokionez, gurasoen menpe bizi direlako. Baina, gehienetan, unibertsitateko ikasleak ez daude guztiz ados horrekin, eta are gutxiago egunotan liburutegi eta akademitan ikasten dabiltzan ikasleak.

Zaila izaten da ikasturteko ikasgai guztiak lehenengo aldian gainditzea, eta baten bat kolokan geratu bada, laguntza eta kontzentrazioa beharrezko izaten dira; baita udan ere. Unibertsitateko ikasleak jo eta ke ari dira lanean uda honetan iraileko azterketak gainditzeko. Bakoitzak bere metodoa du, baina, oro har, oinarritzko arau batzuk betetzen dituzte.

Uztaitetik aurrera, lanak egiten hasten dira ikasleak, beranduegi ez hastearren. Oharrak ikastea nahikoa bada, abuztuan hasten dira goiz eta arratsalde ikasten. Gehienak, jai nagusiak pasatu eta gero hasten saiatzen dira, lehenago ezinezko egiten baitzaie. Batez ere, liburutegi gehienak, Donostiako Koldo Mitxelena kasu, itxita daudelako jaietan.

Arlo humanistikoko karreretako ikasleek nahiago izaten dituzte liburutegiak, baina zenbakiekin lotutako ikasgaietarako, estatistika adibidez, akademian hobeto ikasten dute; arlo tekniko edo zientifikokoek, ordea, akademia aukeratzen dute.

Hala ere, akademiek ere badute euren alde okerra: Xabier Amuntxaztegi Informatika Ingeniaritzako ikasleak dioenez, ingeniaritzako azken mailan ematen diren hainbat ikasgai akademitan ez dituzte ematen, oso espezializatuak direlako. Akademia gehienetan hainbat karreratan ikas daitezkeen ikasgaiak ematen dira. Akademiara joateko aukerarik ez dutenean, ikasleak liburutegira doaz ikastera, beste aukerarik ez daukatelako.

Ikasleek, askotan, nahiago dute etxetik kanpo ikasi, etxean erraza delako josteta moduren bat topatzea. Liburutegian edota akademian badaude, bestalde, euren burua ikastera derrigortzen dute, eta horrek emaitza onak ekartzen ditu gerora, hala diote behintzat ikasleek.

LIBURUTEGIAN ETXEAN BAINO HOBETO. Oro har, ikasleek nahiago izaten dute liburutegia etxea baino. Etxean sofa dago, hozkailua, telebista... Zaila da kontzentratzea, dio Estibaliz Bajo Enpresaritzako ikasleak; gainera, anaia etxean dabil eta etxeko iskanbilarekin ez dago ikasterik, isiltasuna behar dute ikasteko; ikasle gehienek hala uste dute.

Ohiko liburutegia ixtean, herrikoa edo auzokoa, fakultateetara doaz ikasleak, erritmoa ez galtzeko; EHUko ikasleek abantaila dute: ikasle txartela daukate, eta horrekin, nahiz eta berez jendearentzat fakultatea itxita egon, baimena dute 24 ordutan ikastera joateko. Bestela ere, goizez irekita daude fakultateak, Zuzenbidekoa esaterako, edonork bertan ikasi nahi badu.

Gainera, liburutegiak prestatuta daude unibertsitate mailarako, eta ikasleek behar duten materiala badute. Baina askotan bakoitzak bere materiala ekartzen du, klasean emandakoa, horrekin nahikoa da, Ruben Cantera Informatika Ingeniaritzako ikaslearen arabera.

Zenbait ikaslek eguna liburutegian igarotzen dute: 08:30etik 20:30era, otordurako eta atsedenerako tartetxoa hartuta. Hau da, Koldo Mitxelena irekita dagoen denbora. Ordua aukeratzen duten ikasleak ere badaude, goizez bakarrik edota ordu gutxi batzuetarako bakarrik joaten direnak. Norberak antolatu beharra dauka denbora; kolokan utzitako ikasgai kopuruaren arabera moldatzen dute ordutegia. Zenbaitzuk goiz eta arratsalde liburutegian bizi dira; beste batzuek, egunean ordu gutxi batzuk eginda nahikoa dute.

Liburutegiko lasaitasunak eta giro egokiak emaitza onak eman ohi ditu gero, nahiz eta ez diren nahi bezain onak batzuetan, Amuntxaztegiren arabera. Betiere, karreraren, ikasgaiaren eta ikaslearen beraren araberako emaitzak lortuko dituzte ikasleek.

IKASTURTEA LUZATZEKO AKADEMIAK. Akademian ikasturtean emandako materia errepikatu eta sakondu egiten da, laguntza behar duten ikasleen mesederako. Ikasgai batzuk zail samarrak dira, eta laguntzaren beharra izaten dugu, etxean ikastea ez da nahikoa izaten beti, dio Mikel Mauleon Industri Ingeniaritzako ikasleak. Hala ere, akademian emandakoaz gain, etxean ere ordubete inguru ikastea beharrezkoa da, ikasitakoa guztiz barneratzeko, dio Jon Mendia Jarraitu akademiako irakasleak.

Udan gehien landu behar izaten diren ikasgaiak zientziekin lotutakoak dira: kalkulua, fisika, aljebra... Baita marrazketa ere. Eta asteen bost ordu inguru behar izaten ditu ikasleak. Ikasle bakoitzak berak moldatzen du ordutegia, beharren arabera.

Jose Luis Sabalia, Cau akademiako irakaslearen arabera, uztailetik aurrera betetzen dira gelak ikaslez. Gehienak goizez joaten dira klasera, udari probetxua ateratzeko, ahal den neurrian behintzat.

Klaseak hamar ikaslek osatzen dituzte oro har; Jarraitu akademian, esaterako, unibertsitatearen arabera eta mailaren arabera banatzen dituzte, ematen den materia desberdina delako leku bakoitzean, nahiz eta ikasgaia bera izan. Hala, ikasle bakoitzak unibertsitatean emandakoa sakontzen du, nahasketarik izan gabe.

Ehunekoei begiratuz gero, akademiari esker %70 inguruk gainditzen dute ikasgaia. Urtean zehar akademian dabilzan ikasleetatik %70 udan ere

badabiltza klaseetan. Gehienbat, ikasturtean ikasgai gutxi batzuetan matrikulatzen direlako, eta udan beste batzuetan behar dutelako laguntza. Hizkuntzari dagokionez, Jon Mendiaren arabera, Informatikan, Arkitekturan eta Ingeniaritza Teknikoan euskararen kopurua handia da, ikasleen %60 euskarazko ikasketak ari dira egiten. Baina, kasu batzuetan, nahiz eta karrera euskaraz egin, ikasgaiaren bat gaztelaniaz ematen da, erraztasunaren alde: Kimika, esaterako.

Azterketarik ez dute egiten, baina akademietako irakasleek oharrak ematen dizkiete ikasleei etxean ere ikasten jarrai dezaten, ondoren zalantzak klasean galdetzeko. Aurreko urteetako unibertsitateeko azterketak ere eskura dituzte, ikasleek euren maila zenbaterainokoa den ikusi nahi badute. Hala ere, zenbaitzuentzat, akademiara joatea alferrikakoa da, urtean zehar emandakoa errepikatzen dutelako, dio Estibaliz Bajok, horretarako, hobe da bakoitzak bere kabuz ikastea behin eta berriz. Hori, alegia, Jon Mendia irakasleak dioen bezala, ikasgaiaren araberakoa da.

Udan akademiara joaten direnak urtean zehar ere jasotzen dituzte klase gehigarriak, karrerak berak behar hori sortzen duelako. Liburutegietan ere gauza bera izaten da: Liburutegietara joateko ohitura duten horiek udan ere joaten dira. Bai gutxienez azterketa garaietan: urtarrilean eta otsailean, maiatzean eta ekainean, eta abuztu eta irailean. Ikasleek ohitura hori sortzea beharrezkotzat jo dute, ikasgai guztiak gainditu nahi badira behintzat.